

### II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

#### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

##### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

#### **16263064V IFZ duen enpresak eta B01577469 IFZ duen enpresak "2020an Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzak" udal-programaren barruan emandako laguntzei borondatez uko egitea onartzeko erabakiak**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4. artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren zinegotzi ordezkariak 2021eko urtarrilaren 22an emandako ebazpen bana; ebazpenek onartzen dute 16263064V IFZ duen enpresak eta B01577469 IFZ duen enpresak "2020an Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzak" udal-programaren barruan emandako laguntzei uko egitea. Hau da ebazpenen edukia:

I. 2020ko ekainaren 12an egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020an Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko laguntzak emateko udal-programaren 2020ko deialdi publikoa eta hura arautzeko berariazko oinarriak ere (2020ko ekainaren 29ko ALHAO, 72. zk.), norgehiagoka-prozeduraren bitartez tramitatzeko, 40.000,00 euroko zuzkidurarekin, 2020ko ekitaldiko udal aurrekontuko 08.10.4331.4.7104 partidaren kontura.

II. Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi-ordezkariak 2020ko irailaren 29an emandako ebazpenaren bitartez (2020ko urriaren 16ko ALHAO, 117. zk.), deialdia ebatzi zen, eta, besteak beste, honako laguntza hauek eman ziren 2.1 Lerroan ("Iraunkortasuna sustatzen duten produktu edo esperientzia turistikoak sortu, hobetu edo garatzea"):

IFZ / NAN	EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA
16263064V	2.734,98 euro
B01577469	4.693,09 euro

III. Adjudikazioa jakinarazi ondoren (2020ko urriaren 16ko ALHAO, 117. zk.), gorago zerrendatutako enpresa onuradunek emandako laguntzari uko egiteko idazki bana aurkeztu dute.

IV. Proposamenak aztertu ondoren, 2020ko urtarrilaren 16ko idazkiaren bitartez, Baliospen eta Jarraipen Batzorde Teknikoaren Idazkaritzak aurkeztutako uko-egiteen aldeko txostena eman zuen, haiek ez baitzieten beste inongo hirugarreni eragiten eta interes orokorrerako kalterik ez baitzekarten, eta proposatu zuen emandako eta ordaindutako dirulaguntzaren zatia (ehuneko 80) itzultzeko nahitaezko dosierra abiaraztea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 93. artikuluan xedatutakoaren ildotik, interesdun guztiek uko egin ahal izango diete beren eskubideei, betiere ordenamendu juridikoak hala debekatzen ez badu, eta Administrazioak onartu beharko du, eta prozedura amaitutzat eman.

Horrenbestez, gorago aipatutako laguntza-deialdia onestearekin batera Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko ekainaren 12an egindako bilkuran eskumenak eskuordetzeko hartu zuen erabakia aplikatuz, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak honako ebazpen hau eman du,

## Ebazten du

Lehenengoa. Honako borondatezko uko-egite hauek onartzea: 16263064V IFZ duen enpresak 2.734,98 euroko dirulaguntzari uko egitea, eta B01577469 IFZ duen enpresak 4.693,09 euroko dirulaguntzari uko egitea; dirulaguntza horiek zinegotziak 2020ko irailaren 29an emandako ebazpenaren bitartez eman zitzaizkien haien proiektuei, "2020an Gasteizen produktu eta esperientzia turistikoak sortu eta garatzeko aparteko udal-laguntzen deialdiko" 2.1 Lerroan ("Produktu edo esperientzia turistikoak sortu, hobetu edo garatzea; 2020. urtea").

Bigarrena. Kontuan hartuta dirulaguntzak emateko erabakia hartu ondoren haien zenbatekoaren ehuneko 80 ordaindu zitzaizela, 16263064V IFZ duen enpresari hamabost egun naturaleko epe luzaezina ematen zaio, erabaki hau jakinarazten den egunetik, kontuan ordaindu zitzaion 2.187,98 euroko zenbatekoa itzul dezan Udalaren kontuan sartuz (Kutxabankeko ES28.2095.0611.081090953273 zenbakiko kontua), eta B01577469 IFZ duen enpresari hamabost egun naturaleko epe luzaezina ematen zaio, erabaki hau jakinarazten den egunetik, kontuan ordaindu zitzaion 3.754,47 euroko zenbatekoa itzul dezan Udalaren kontuan sartuz (Kutxabankeko ES28.2095.0611.081090953273 zenbakiko kontua).

Hirugarrena. Erabaki hau jakinaraztea interesdunei, eta jakinaraztea bide administratiboa amaitzen duela erabakiak eta haren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango dutela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, alde zuzenetik aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik. Hala eginez gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu harik eta hura espresuki edo ustez ebatzi arte. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahal izango da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahal izango da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera."

Vitoria-Gasteizen, 2021eko otsailaren 12an

*Administrazio Zerbitzuko burua*  
**LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI**